



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

LEHIAREN EUSKAL KONTSEILUAREN EBAZPENA

258-ZEH-2018 LEA/AVC espedientea

Bilbo, 2018ko urtarrilaren 18a

Bertaratuak:

Presidentea: Alba Urresola Clavero andrea

Bokala: Rafael Iturriaga Nieva jauna

Bokala: Enara Venturini Álvarez andrea

Idazkaria: Lourdes Muñoa Corral andrea

Lehiaren Euskal Kontseiluak, Lehiaren Euskal Agintaritzaren Legearen (otsailaren 2ko 1/2012) 10 e) artikuluan aurreikusitakoaren arabera dituen eskumenak betez, Lehiaren Euskal Agintaritzaren 258-ZEH-2018 zenbakiko espedienteari buruzko EBAZPEN hau eman du.

I. AURREKARIAK

1. 2017ko azaroaren 15ean, COMERCIAL AIBAK TRS SL (AIBAK) sozietateak Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalean (MLBN) salaketa bat aurkeztu zuen AUZO LAGUN Koop. S. eta COCINA CENTRAL MAGUI Koop. S. sozietateen aurka aurretiko hitzarmenak egin zituztelako EAEko zuzeneko kudeaketako ikastetxe publikoetako catering-zerbitzua kudeatzeko lehiaketako 13. eta 17. loteetan, haien adjudikazioa kontrolatzeko (CO2/010/2015 espedientea).

2. 2017ko abenduaren 11n MLBNren Lehiako zuzendariak Lehiaren Euskal Agintaritzaren (LEA) aldeko esleipen-proposamena sinatu zuen.



3. 2017ko abenduaren 18an LEAko Ikerketaren zuzendariak haren aldeko esleipen-proposamenaren berri jaso zuen.

Kontuan hartuta, batetik, aipatutako proposamena eta, bestetik, Eskumenak Koordinatzeko Legearen 2. artikuluan ezarritakoa¹, 15 eguneko epea igaro ondoren LEAk salaketaren ardura hartu eta dagokion prozedura hasi ahal izango du.

4. Ebazpen honetan jasotako salaketa bat dator AIBAK sozietateak ere 2016ko martxoaren 18an LEAn AUZO LAGUN KOOP. S. (AUZO LAGUN), COCINA CENTRAL MAGUI SL (MAGUI) eta GASTRONOMÍA CANTÁBRICA SL (GASCA) enpresen aurka aurkeztu zuenarekin. Orduko hartan salatu zenez, enpresa horiek aldez aurreko hitzarmenak egin zituzten Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren mendeko zuzeneko kudeaketako ikastetxe publikoetako jantokietako catering-zerbitzua kontratatzeko lizitazioko 11., 13., 14., 15. eta 17. loteetan, lizitazioa bera kontrolatzeko helburuz (C02/010/2015 espediente). Hau da, orain aztertutako salaketak aurretik aztertutakoaren xede bera du, baina 2016an salatutako bost lotetatik biri bakarrik dagokie eta bi sozietateren kontra jarri dute.

5. Aurkeztutako salaketa eta isilpeko informazio baten esparruan egindako hainbat jarduketa aztertu ondoren, 2017ko uztailaren 26an LEAko Ikerketa Zuzendaritzak zehatzeko prozedurarik ez hastea proposatu zion Lehiaren Euskal Kontseiluari (LEK), ez baitu arrazoizko zantzurik ikusi Lehiaren Defentsarako Legearen (uztailaren 3ko 15/2007) 1. eta 2. artikulua hautsi direla jotzeko. Ondorioz, 2017ko urriaren 3an Lehiaren Euskal Kontseiluak erabaki zuen zehatzeko prozedura ez hastea eta egondako eta izapidetutako jarduketak artxibatzea, ez baitzen nahikoa zantzurik Lehiaren Defentsarako Legearen 1. eta 2. artikulua hautsi zirela frogatzeko.

Aipatutako ebazpena 2017ko urriaren 24an jakinarazi zitzaion AIBAK enpresari, eta ez dago hura errekurritu izanaren berririk; ebazpen hori irmoa da, beraz.

III. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

6. AIBAK enpresak MLBNren aurrean 2017ko azaroaren 15ean aurkeztutako salaketak eta LEAn 2016ko martxoaren 18an aurkeztutakoak eduki bera dute.

¹ 1/2002 Legea, otsailaren 21ekoa, Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehia babesteko dauzkaten eskumenak koordinatzeari buruzkoa (2002ko otsailaren 22ko BOE, 46. zk.), abenduaren 30eko 62/2003 Legeak (BOE-A-2003-23936) eta uztailaren 3ko 15/2007 Legeak (BOE-A-2007-12946) aldatuta.



Alde bakarria da lehenengo salaketak lizitazioaren 11., 13., 14., 15. eta 17. loteak aipatzen dituela (CO2/010/2015 espedientea) eta 2017ko azaroaren 15ean aurkeztutako salaketak, berriz, lizitazio beraren 13. eta 17. loteak bakarrik aipatzen dituela.

7. Ikusi, jarraian, salatutako gertaerak:

AIBAK sozietateak (LEAren aurrean) 2016ko martxoaren 18an salatutako gertaeren edukia

Comercial Aibak TRS SLk salaketa hau egiten du gertaera honengatik: «zenbait enpresak aldeztu aurretiko hitzarmenak egin dituzte EAEko zuzeneko kudeaketako ikastetxe publikoetako catering-zerbitzua kudeatzeko lehiaketaren 11., 13., 14., 15. eta 17. lotetan, haien adjudikazioa kontrolatzeko (CO2/010/2015 espedientea).

Lote horien adjudikazioak aztertu ondoren, agerikoa da bi enpresa adjudikaziodunek elkarri kalterik ez egiteko eta elkarren onurarako hitzarmena egin dutela haietako bakoitzarentzako lote abantailatsuenak ia gehieneko prezioetan lortzeko. Enpresa bakoitzak interesatzen zaion preziorik apaleneko eskaintza egiten du, eta horrela eskaintza lehiakorrena dela bermatzen du.

Elkarri kalterik ez egiteko hitzarmen horiek zuzeneko ondorio hauek dituzte:

- Hitzarmen horien emaitza kaltegarria da jantoki-zerbitzuaren erabiltzaileentzat eta euskal gizartearentzat oro har.

AIBAK sozietateak (MLBNren aurrean) 2017ko azaroaren 15ean salatutako gertaeren edukia

Salaketa hau egiten da gertaera honengatik: «zenbait enpresak aldeztu aurretiko hitzarmenak egin dituzte EAEko zuzeneko kudeaketako ikastetxe publikoetako catering-zerbitzua kudeatzeko lehiaketaren 13. eta 17. loteetan, haien adjudikazioa kontrolatzeko (CO2/010/2015 espedientea).

Lote horien adjudikazioak aztertu ondoren, agerikoa da bi enpresa adjudikaziodunek elkarri kalterik ez egiteko eta elkarren onurarako hitzarmena egin dutela haietako bakoitzarentzako lote abantailatsuenak ia gehieneko prezioetan lortzeko. Enpresa bakoitzak interesatzen zaion lotean preziorik apaleneko eskaintza egiten du, eta horrela eskaintza lehiakorrena dela bermatzen du.

Elkarri kalterik ez egiteko hitzarmen horiek zuzeneko ondorio hauek dituzte:

- Hitzarmen horien emaitza kaltegarria da jantoki-zerbitzuaren erabiltzaileentzat eta euskal gizartearentzat oro har.



- Lizitatzailleek hitzarmenak egitean lehia askea desagertzen da, eta zuzeneko kaltea egiten die horrek merkatuan dauden gainerako enpresei.
- Lote batera talde bereko enpresek agiriak aurkezteak, administrazio-klausulen pleguaren karatularen 40.4 klausularen arabera, eragotzi egiten du lizitatzeko orduan lehia egotea. Talde bereko enpresen eskaintzen koordinazioa oso agerikoa da; prezioak lizitazioaren gehieneko prezioetara egokitu dituzte kontzeptu guztietan batean izan ezik.
- Lizitatzailleek hitzarmenak egitean lehia askea desagertzen da, eta zuzeneko kaltea egiten die horrek merkatuan dauden gainerako enpresei.
- Lote batera talde bereko enpresek agiriak aurkezteak, administrazio-klausulen pleguaren karatularen 40.4 klausularen arabera, eragotzi egiten du lizitatzeko orduan lehia egotea. Talde bereko enpresen eskaintzen koordinazioa oso agerikoa da; prezioak lizitazioaren gehieneko prezioetara egokitu dituzte kontzeptu guztietan batean izan ezik.

1. Aztertutako jokabidea

8. Lehiaren Defentsarako Legearen 1. artikulua honako hau ezartzen du:

Debekatuta dago taldeko akordio, erabaki edo gomendio oro, edo hitzartutako praktika edo nahita paraleloa den jarduera oro, horien helburua hau bada edo izan badaiteke: merkatu nazional osoan edo zati batean lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea (...).

Enpresa salatzailearen arabera, 13. eta 17. loteetan lizitatzera gonbidatutako enpresek hitzarmenak egin zituzten lizitazioaren aurretik, loteen adjudikazioa kontrolatzeko. Lehiaren Euskal Agintaritzako Ikerketa Zuzendaritzak, hortaz, Lehiaren Defentsarako Legearen 1. artikulua debekatutako ustezko akordio horiek egin ote ziren aztertu zuen.

13. eta 17. loteetan, AUZO LAGUN eta MAGUI enpresek soilik jaso zuten gonbidapena (enpresa-talde berekoak, bi-biak).

13. eta 17. loteetan lizitatzailleek egindako eskaintzak hauek izan ziren (kolorez azpimarratu dira enpresa eta eskaintza adjudikazioduna):

13. LOTEA. GIPIZKOA	GEHIENKO PREZIOA	AUZO LAGUN	MAGUI
Sukalde nagusian egindako bazkariaren hornidura / Sukalde nagusiak egindako piknikaren hornidura	2,77	2,76	2,76
<i>In situ</i> kozinatuzeko lehengai-errazioen hornidura sukalde	1,73	1,72	1,72



nagusiaren partetik / Piknikeko lehengai-errazioen hornidura sukalde nagusiaren partetik			
Monitorearen lanordu baten prezioa	23	22,99	22,99
Office-sukaldearen (<i>in situ</i>) prezioa orduko	23,15	23,14	23,14
Garraiatutako officearen prezioa orduko	23	22,99	23
17. LOTEA. GIPUZKOA	GEHIENEO PREZIOA	AUZO LAGUN	MAGUI
Sukalde nagusian egindako bazkariaren hornidura / Sukalde nagusiak egindako piknikaren hornidura	2,77	2,76	2,76
<i>In situ</i> kozinatzen lehengai-errazioen hornidura sukalde nagusiaren partetik / Piknikeko lehengai-errazioen hornidura sukalde nagusiaren partetik	1,73	1,72	1,72
Monitorearen lanordu baten prezioa	23	22,99	22,99
Office-sukaldearen (<i>in situ</i>) prezioa orduko	23,15	23,14	23,14
Garraiatutako officearen prezioa orduko	23	22,99	23

9. Talde bereko bi enpresa lehiatu ziren 13. eta 17. loteetan: AUZO LAGUN eta MAGUI. Kontratuen Legeak hori baimentzen du; beraz, lizitazioaren gehieneko prezioan jaitsiera nabarmenik egotea ez zen aurreikusteko moduko kontua. Jada aipatu denez, logikoa da enpresek ahalegin berdina ez egitea eskaintza guztietan. Are gehiago, logikoa da eskaintza oldarkorrenak esleipendun izateko lehiakorrak izan behar dutela uste duten loteetan egitea. Era berean, logikoa da AUZO LAGUNek ahalegin lehiakor hori ez egitea bere taldeko enpresek bakarrik parte hartu zuten loteetan. Horrez gain, zentzuzkoa da orobat AUZO LAGUNek prezioak ez asko jaitea ahalegin lehiakorra bere taldeko enpresa batek egiten duen loteetan, enpresa horrek lotea ezagutzen baitu eta, gainera, gertutasuna dela medio errentagarriagoa baitzaio.

10. Laburbilduz, espedientean jasotako informazioa eta enpresa lizitatuzaileek aurkeztutako eskaintzen analisia ikusita, ezin da egiaztatu Lehiaren Defentsarako Legearen 1. artikuluan tipifikatutako merkatua banatzeko akordiorik egin zutenik.

2. Ebazpena emateko eskumena duen organoa.

11. Lehiaren Defentsarako Legearen 49.3 artikulua honako hau xedatzen du:

Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak, Ikerketa Zuzendaritzak proposatuta, ustez lege honen 1., 2., eta 3. artikuluetan debekatutako jokaerak izateagatik hasi beharreko prozedurak ez hastea erabaki eta ordura arteko jarduerak artxibatu ahal izango ditu, Legea urratu izanaren zantzurik ez dagoela irizten baldin badio.

12. Azaldutakoari jarraikiz, Ikerketako Zuzendaritzak ondorioztatu duenez, ez dago nahikoa zantzu Lehiaren Defentsarako Legearen arau-hausterik egin dela xedatzeko janari prestatuak eratzeari, lehengaiak entregatzeari, horiek garraiatzeari eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren mendeko zuzeneko kudeaketako ikastetxe publikoetako jantokien funtzionamendurako prestazio osagarriak emateari dagokienez (C02/010/2015 zenbakiko espediente).



13. Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko Legeko 10. artikulua honako hau xedatzen du²:

10. artikulua.- Lehiaren Euskal Kontseiluaren eginkizunak.

Lehiaren Euskal Kontseiluaren eginkizunak honako hauek dira: (...)

e) Administrazioak bere kabuz hasitako jarduerak edo salaketak artxibatzea ebaztea, hala egin behar denean, zehapen-espeditante bihurtu baino lehen, (...)

14. Lehiaren Defentsarako Legearen 49.3. artikulua honako hau xedatzen du:

3. Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak, Ikerketa Zuzendaritzak proposatuta, ustez lege honen 1., 2., eta 3. artikuluetan debekatutako jokaerak izateagatik hasi beharreko prozedurak ez hastea erabaki eta ordura arteko jarduerak artxibatu ahal izango ditu, Legea urratu izanaren zantzurik ez dagoela irizten baldin badio.

261/2008 Errege Dekretua, otsailaren 22koa; haren bidez onetsi da Lehiaren Defentsarako Araudia. Araudi horren 27. artikulua honako hau xedatzen du:

Lehiaren Batzorde Nazionaleko Kontseiluak (kasu honetan Lehiaren Euskal Kontseiluak) prozedura ez hastea eta uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 44. eta 49.3 artikuluetan ezarritako baldintzetan jarduerak artxibatzea erabaki ahal izan dezan, Ikerketa Zuzendaritzak berariaz jakinaraziko dizkio jasotako salaketa, aurretiaz egindako jarduerak —hala dagokionean— eta artxibatzeke proposamena.

Aurrekoarekin bat eginez, eta, txostenean oinarrituta, Ikerketa Zuzendaritzak zehapen-espeditanterik ez hasteko eta salaketa amaitutzat jotzeko proposamena egin du 2018ko urtarrilaren 9an. Kontseilu honek Ikerketa Zuzendaritzaren aipatutako proposamena onartu du. Izan ere, salaketak 2016ko martxoko aurrekoarekin duen bat-etortzetik, espeditante honetan eta 184-ZEH-2016 espeditantean egindako instrukzioetik bai eta azaldutako zuzenbideko egitateetatik eta oinarrietatik ere ondorioztatzen denez, ez dago arau-hausteen zantzurik. Hortaz, salaketak ez du nahikoa funtsik, eta, horren ondorioz, ezin da zehapen-espeditanterik hasi aipatutako 27. artikuluko bigarren zenbakiarekin bat eginez.

Aipatutako manuak eta aplikazio orokorreko gainerakoak aztertuta, 2018ko urtarrilaren 18ko goizean egindako osoko bilkuran, Lehiaren Euskal Kontseiluak

² 1/2012 Legea, otsailaren 2koa, Lehiaren Euskal Agintaritzarena (2012ko otsailaren 9ko EHAA, 29. zk.).



EBAZTEN DU

BAKARRA- Zehapen-prozedurarik ez hastea eta erreferentziako salaketaren esparruan egindako eta izapidetutako jarduketak amaitutzat jotzea; izan ere, ez da egiaztatu nahikoa zantzu dagoenik Lehiaren Defentsarako uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 1. artikulua hautsi dela ondorioztatzeko.

Jakinaraz bekie ebazpen hau Lehiaren Euskal Agintaritzako Ikerketa Zuzendaritzari, MLBNko Lehiaren Zuzendaritzari eta interesdun guztiei, eta adierazi bekie ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen duela eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipin dezaketela EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, jakinarazpena egiten den egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.